

STM

donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura




San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

XOXO BELTZA

Irakaslearen gida

San Telmo museoa



Erakunde kolaboratzaileak:



Babesle pribatuak:



Helbururak

Euskal gizarte tradizionalaren eta bere hileta-erritoen ezaugarri nagusiak ezagutaraztea, betiere modu arin eta ludikoaz.

Hilarriak hainbat aldetatik identifikatzen laguntzea: formak, ikonografia, materiak, kronologia.

Irudimena sustatzea, ikasleek berek hilarri berriak egin ditzaten.

Ibilbide honek dohain berezi bat izan dezake gainerakoen aldean: gazteenen kolektiboek laguntzea heriotzaren fenomenoak ulertzen eta, behar izanez gero, gaindi dezaten, desdramatizatuz eta oso epe historiko luzean txertatuz, batez ere haienean senide edo hurko bati berrikitan gertatu bazaio.

Hartzaileak

Haur hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko ikasleak.

Metodologia

Aktibitateak zenbait erakustareto iraunkorren bisitaldi gidatua eta hezkuntza tailerreko ariketa hartzen ditu bere baitan:

- Erakustareto iraunkorretan: tradiziozko hileta-erritoen azalpena museoko bi bilduma nagusien bitartez: hilarriena eta argizaiolena.
- Hezkuntza tailerrean: ikasleek berek egingo dituzte hilarriak, buztinez.

Iraupena

Erakusketaren bisitaldi gidatua: 30 min. (4-6 urtekoek) eta 45 min. (6-8 urtekoek)

Tailerra: 30 min. (4-6 urtekoek) eta 45 min. (6-8 urtekoek)




1


ARIKETAREN HELBURUA

Heriotzaren kontzeptua hurbiltzea herri kanta baten bidez, eta abereen bidez, umeei ulergarriago eta goxoago gerta dakien.

XOXO BELTZA: herri kanta bat



Xoxo beltz bat banuen
kaiolan sartua.
Egun baten, neguan,
hil zen gixajoa.
Lurpean sartu nuen
zelaian, xokoan.
Eguna argitzen denin,
xolo hartan, xolo hartan,
xoxoan kantua.



Tenía un mirlo negro
metido en una jaula.
Un día de invierno,
el pobre se murió.
Lo enterré en el campo,
en un rincón.
Ahora, cuando amanece,
le escucho cantar
desde aquel rincón.

Herri kanta hauen bi bertsiio ezagunenak Mikel Laboarena ("Lau-Bost" diskoa) eta Amaia Zubiriarena (Pascal Gaignerekin batera egindako "Egun argi hartan" diskoan) dira. Oso kanta erraza da, musika-tresnarik gabe kantatu ohi dena.

Kanta gustatu zaizue?

Gertatu al zaizue inoiz halakorik, oso maite-maite zenuten aberetxoren bat hil zaizuela?

Nola gogoratzen duzue? Argazkiekin, marrazkiekin... badakizue non dagoen lurperatua?

Ahozko ariketa, gaiari ekiteko galdera eta erantzun bidez ikasleekin batera egiten dena.

Korupean egiten da, kalostreparen, eliza-sarreraren eta erakustaretoaren artean.



2

ARIKETAREN HELBURUA

1. Azaltzea zein den hilarri baten funtzioa, eta zein argizaiola batena.
2. Azaltzea zein den, San Telmoko bi bilduma enblematikoen bidez, museo baten funtzioa.

Duela gutxi arte, hildako senide bat gogorarazteko, batez ere bi gauza egiten ziren: elizan kandelak piztea eta hilobian hilarriak jartzea.

Hona hemen San Telmo Museoko objekturik inportanteenetako batzuk: argizaiolak eta hilarriak.

Badakizue zeintzuk diren argizaiolak eta zeintzuk hilarriak?

Pista: argizaiola, hitz bat baino gehiago, elkartutako hiru hitz dira: argi, zari eta ohola.

Argazki batean ikus dezakezue non pizten ziren argizaiolak: etxeoandreek (familia bakoitzak berea zeukalako) elizara eraman eta lurrean jartzen zituzten. Badakizue zergatik? Bada, aspaldi handian, jendea eliza barruan lurperatzen zelako.

Elizetatik kanpo egiten zutenean ere, normalean eliza ondoan egiten zen. Gaur egun, hilerriak apartaxeago egon ohi dira. Eta hilerrietan, honelakoak jartzen zituzten. Oraingo honetan ere izenak salatzen du izana: hil-harriak, hildakoak lurperatuta zeuden tokia seinatzeko harriak.

Egia esan, gaur egun ere jarraitzen du jendeak kandelak elizetan pizten eta hilobiak harrizko panelekin seinatzeko, baina beste era batera. Horrexegatik gordetzen dira argizaiola eta hilarri hauek museoan, dagoeneko erabiltzen ez direlako. Eta horrelaxe bermatzen da haien kontserbazioa: museoak, gauza gorde ez ezik, lehengo bizimoduen berri ematen digutelako. Eta hala, oso gauza inportantea irakasten digu: gauza asko aldatu arren, funtsezkoa mantentzen dela oraindik ere: maite genituen pertsonen oroimena.



3

ARIKETAREN HELBURUA

Hilarrien tipologiak (materialak, formak, apaindurak...), eginkizunak eta kronologiak azaltzea, oso gainetik bada ere.



Galdera eta erantzun bidezko ariketa, ahoz egiten dena, ikasleek hilarrien zer-nolakoak ezagut ditzaten.

Kalostrepean egin beharrekoa:

Hilarriok hainbat tokitatik datoz. Gehienak hilobiak seinatzeko dira; baina beste batzuk mendian aurkitu dira, bide zaharren ertzean. Norbait ezustean hiltzen zenean, ezbeharrez, bihotzak jota..., hantxe bertan kokatu ohi zen hilarri bat, jendeak pasaeran hildakoa gogora zezan. Gaur egun ere halakoak ikusten dira. Ikusi al duzue inoiz mendian, edo errepide baten alboan, adibidez, plakarik, gurutzerik, lore-sortaren bat, istripu bat izandako tokian?

Aspaldi handi-handitik gogorarazten dituzte gizakiek beren hildakoak. Historiaurreko aztarnetan halako arrastoak topatu dira. Garai bakoitzak eta kultura bakoitzak badu bere modua; adibidez, Egiptoko piramideak. Euskal Herrian badira trikuharriak, harrizko etxe modukoak, eta zutarriak, eta harrespilak, hau da, biribilean lurtean iltzatutako harriak, eta abar. Eta badakigu erromatarren aurretik ere bazeudela hilarriak. Hilarriak oso aspaldikoak dira eta mundu osoan zehar aurkitzen dira. Euskal Herria da hilarri gehien dituen lekuetako bat.

Kristautasunarekin batera, hilarrietan gurutzeak agertu ziren. Egia esan, hainbeste marrazki izaten dute, eta hain konplikatuak... batzuetan ez da erraz bereizten zer den marrazki nagusia: gurutzea biribil barruan dagoen, gurutze bat baino gehiago diren, biribilak gurutze barruan diren... Horrez gain, badira izarrak, landareak, animaliak, pertsonak, lanabesak, idazkiak, baita zer diren ere ongi ez dakigun gauzak ere. Kontuan hartu urteen poderioz ezabatu edo hondatu daitezkeela.

Ea nork aurkitzen duen gurutze bat. Erraza, ezta?

Eta biribil bat? Ia denak daude biribilean! Zailxeago egiteko, bilatu biribil bat, edo gehiago, hilarriaren barruan.

Eta izarren bat? Zenbat punta ditu?

Eta animalia bat? Zer animalia da?

Eta landareren bat (loreak, hostoak, zuhaitzak...)?

Eta pertsonaren bat?

Eta pertsona baten izena? (Badaude Ivan Lope eta Oger de Ursua: Iban edo Oier izenekorik badago taldean, aipatu)



Galderei erantzuten dieten hilarri bat baino gehiago badaudenez; areago, hilarri berean galdera bat baino gehiago erantzun daitekeenez, adibide modura, hona hemen kalostrapeko zenbait hilarriren argazkiak. Batzuetan marrazkiek abstrakziora jotzen dute; hortaz, ez da beti erraz bereizten zer den geometriko hutsa edo landare estilizatua, edo astronomikoa...:




Denetarik dago; izan ere, pertsonak bezala, hilarri guztiak desberdinak dira. Eta ez apainduragatik soilik. Ongi erreparatuz gero, pertsona-itxura ere badute nolabait: burua eta gorputza, eta batzuek "besoak" eta guzti. Eta, pertsonak bezalaxe, batzuk luze garaiak dira, eta beste batzuk txikiagoak; batzuk lodixeagoak, batzuk argalxeagoak, ilunxeagoak edo argixeagoak, gorrixagoak, urte askokoak eta ez hainbestekoak... Eta, pertsonak bezalaxe, batzuk gustukoago ditugu beste batzuk baino; baina horretan ez ginateke inoiz ados jarriko. Beraz, honako hauek bilatuko ditugu:

- altuena
- zaharrena (dirudienez, erromatarren aurrekoa ere bai)
- "begi bat" duena (zer den edo zer adierazi nahi zuen benetan ez badakigu ere)
- "besoak" dituen bat






MARRAZTU HILARRI LUZEENA, ZAHARRENA, BEGIA DUENA ETA BESOAK DITUENA



LUZEENA



ZAHARRENA




BEGIA




BESOAK





San Telmo museoa



MARRAZTU GEHIEN GUSTATU ZAIZUN HILARRIA



4

ARIKETAREN HELBURUA

Haurren sormena piztea.



TAILERREAN EGIN BEHARREKO ARIKETA: egin ezazu zeure hilarria

Hilarriak zer diren eta zertarako balio duten dakigunez geroz, geure hilarriak egingo ditugu orain. Harria oso material zaila da lantzeko; beraz, buztinezkoak egingo ditugu. Gero, lehortzen direnean, pixka bat gogortu eta gorde ahal izango dugu.

Bakoitzak nahi duen forma emango dio, eta gustuko apaindurak egingo: izena, loreak, animaliak, karratuak, biribilak... nahi duguna. Lehen gurutzeak, tresnak, goldeak, frutak... marrazten bazituzten, orain gure sinadura, jostailuren bat, gure jaki gustukoena egin dezakegu ... Adibidez, pizza bat egitea oso erraza da hilarri batean, eta, piztan bezala, nahi duguna gehi diezaiokegu.

Hilarria egiteko tresnak

- Buztinezko xaflak, 5 cm inguru lodi
- Eztenak
- Zurezko tresneria, buztina lantzeko aproposa

Eredu modura























































- Granito, kareharri, hareharri eta marmolezko hilarrien erreprodukzioak, gutxi gora behera 1:5 eskalakoak.
- Hilarri baten hilarria, eskuz landua
- 20 argazki zabalgarri
- "Hilarri-pizza" txantiloia
- Beste adibide batzuk dakartzaten koloredun fotokopiak



Garai eta herrialde desberdinetako hilarrietan egindako irudien adibideak.


Símbolos

Formas



Marrazkiak eskalan egiten laguntzeko sarea.



Hezkuntza tailerlean egindako hilarrien adibideak.

